

# HURBILTZE-BIDEA

Xabier Erro

*Xabier Erro hizo la marcha de aproximación completa, prácticamente desde Kathmandú, llevando el oxígeno y el gas. Eso le dio ocasión de convivir durante tres semanas con el sirdar Pemba Tsering, con tres de los sherpas de altura y con más de 100 portadores de los pueblos que viven en aquellas tierras altas al pie del Himalaya.*


Munduko mendirik garaienen artean, lurralde haundi bat zabaltzen da: siniskera budista, mongoliarren antzekoak eta tibetar hizkuntza, sherpatarren herria.

Urtarrilaren 20 ean irten nintzen Lamusangotik, Pemba Tsering (sirdarra), hiru sherpa eta ehun ta hamar garraitzalekin. Gure helburua hiru mila kilo gas eta oxigeno Namche Bazar-araino garraitzea zen. Gainontzeko materiala hegazkinez Kathmandutik Luklara bidaliko zuten. 12 edo 13 egun behar dira Lamusangotik (700 m.) Namche Bazar-eraino (3.400 m.) joateko Guk berriz, hogeitun egun gehar genituen.

Laugarren egunetik aurrera, jasaleek ez zuten jarraitu nahi. Mendiko goi lepakan elurra eta horma zegoen, hotz haundia egiten zuen. Gauak igarotzeko behar zen arroparik ez eta oinhuksik, zegokien soldata jaso eta beheruntz abiatzen ziren. Atsedean egun batetan, Pembak inguruko jendez batetzen zituen besteek utzitako zuloak. Egund batez hogeitun ta hamar jasaleek utzi gintuzten eta Those herrian kontua eskatu, sei-argarren eguna zen.

Thoseko jasale berriek indartsuago eta jantziz hornituago zetozen; mendian gehiago ohituak. Heuren artean sherparen bat ere bazen. Lamusangotik urruntzen eta Dudh Kosi ibaiaren haranera urbiltzen gineneran, sherpa gehiagokin topatzen ginen. Jumbesi-ra iritsi ginenean, sherparen herrian ginela erran zidan Pembak. Atzean gelditu ziren haranetan newars, tamars, gurungs eta chetrisak, sherpak bizi diren haranetik guztiz ezberdinak. Lehenengoak kathmandutarren antzekoak dira, beraz indiarrek, besteak berriz mongoliarrak eta hizkuntzaz guztiz ezberdinak dira. Sherpa

Foto Emilio Hernandez



Xabier con el sirdar Pemba Tsering controlando el material.






Foto Txomin Uriarte

*¡NAMASTE!, nos saluda un crío al borde del camino, con ese gesto oriental tan elegante.*

*Por el Dudh Kosi, el «rio de leche», que cruzamos tantas veces, bajó hace unos años una expedición de piragüistas británicos.*



Foto Txomin Uriarte

eta tibetar hizkuntza berriz, antzekoak dira.

Tibeteko Tingri barrutian Dudh Kosi eta Bhote Kosi artean aurkitzen dira sherpak bizi diren hiru herrialdeak. Normalki Solu Khumbu izenez ezagutzen dugu alderdi hau, beraz Khumbu, Pharak eta Soku, sherpak ere gizarte bakar bat osaturik, nahi dutenekin eta merkatalgoaz erlazionaturik heuren artean. Hasieran Pembarekiko harremanak hotzegiak ziren, zorionez gero eta hobekiago moldatzen ginen. Pemba hitz guttiko eta esperientzi haundiko gizona

zen, guztiz ongi ezagutzen zuen mendiko bizitza, baina ez hangoa bakarrik, gure bizitzaz ere jantzia zen. Messneren gonbituaz, Austrian hiru hilabete igaro zituen. Nik heuren herriaz eta etorreraz galdera aunitz egiten nizkion. Berak beti gauza bera erantzuten zidan, sherpak hangoak zirela eta ez tibetarrak historiagile batzuk dioten bezala. Baina Pembak nola tibetar ala sherpa hizkuntzak guztiz ondo mintzatzuten zituen.

Arratsaldero elkarrekin afaltzen genuen, gehienetan arroz plater haundi bat patata

eta barazki batzukin eta tarteka aragi puska bat, gero chang beroa edaten genuen (arrozegindako garagardoa) eta tabako ostoz egindako zigarroren bat erretzen genuen.

Pemba 16 urtekin hasi zen espediziotan ibiltzen, orain 32 urte dituelarik 10 aldiz sirdar izanik. Inglesa, nepaioia, tibetiar eta sherpa hizkuntzak ongi menperatzen ditu.

Otsailaren 5 ean iritsi ginen bere etxera 50 jasalekin, Namche Bazarrera, 3.400 m. tan, 5 egunen buruz jasale guztiak iritsi ziren eta egun hortan jai haundi bat ospatu genuen Pembaren etxean, chang, yaken aragia, arroza eta abar. Jasaleek, zeinek soldata guztia kobratu zuten, danbor pare baten doinuaz eta abestien musika entzuz dantzari ekin zioten. Keaz baterik zegoen sukaldea, kezulorik ez dutelako hango etxeek, hala eta guztiz ere gau zoriontsu eta pozgarri bat izan zen.

Pemba jarleku haundienean eseri zen, bere emaztearekin hizketan zegoen, zuela hiru hilabete ez zuten elkar ikusi eta laister gurekin Everestera etorriko zen, 4 hilabete berriz elkar ikusi gabe.

Khumbuko herri garrantzitsua Namche Bazar da bere 73 etxekin, inguruetan Khumjung (93 etxe) eta Kunde (43 etxe) daude egon beharrez beraz.

Dudh Kosi haran gorenean Phortse dago (63 etxe) eta Imja Kola haranean Pangbocheko herri zaharra aurkitzen da (58 etxe).

Namchetik Tibeteruntz bide bat doa Lang Pa Latik igaroaz, hasieran Bhote Kosi haranetik pasatuz. Bide honetan Thamo, Thami eta Tamote, Thamichok (192 etxe) izenekin ezagutzen dira. Herri hauek nahiko zelaituak dira lurra lantzeko, Namche ez ezik aldapatsuago delakoz.

Jasale guztiak Pembaren etxera iritsi zirenean, Campo Baseruntz abiatu nintzen bakarrik, hiru egunez iritsi nintzen, zeren eta nere gorputza erabat ohituta zegoen halako lurraldetik ibiltzera. Campo Basen neguko poloniar espedizioarekin topo egin nuen. Bi egun heurenkin igaro nituen eta Campo Base ezarriko genuen tokia aukeratu nuen. Momentu horretan polakoak «Collado Sureraino» iritsi ziren. Gero Namchera eta Luclara jetxi ondoren, hegazkin batez Kathmandura, non beste expeditzioki-deekin elkartu nintzen.

Euskaditik Bombayra bidai luze bat, Bombaytik Kathmandura kaminoz beinere bukatzen ez zen ibilaldi bat, Jaseleekin ezin ahaztuko dudun egunak, Campo Basera iristeko eta berriz atzera. Hegazkinez Kathmandura duela bi hilabete eta erdi Gasteizen agurtu nituen adixkideak berriz bersarkatzera.